

PARTE ZAHARRA ▶ HIRIGINTZA

Zenbait arkitektoek Trinitate plazak lehengo itxura berreskuratzea eskatu dute

Udalak frontoia estali nahi duela adierazi dute, eta horren kontra agertu dira; auzotarrek plazak kirolgune izan behar duela diote beste tokirik ez dutelako

RAUL PEREZ

Santos Barea, Mikel Garai, Manuel Iñiguez, Jose Luis Loinaz, Anton Pagola, Eugenio Urdanbide eta Alberto Ustarroz arkitektoek Trinitate plazak hasierako itxura berreskuratzearen aldeko manifestua kaleratu dute. Atzo ezagutarazi zuten Trinitate plazatik gertu.

Azken urteetan egindako lanen ondorioz, Trinitate plaza negargarri dagoela salatu dute arkitektook. Diotenez, plaza kirolgune pribatu bihurtu da. «Ez dugu esan nahi plazan kirolik ezin denik egin, baina futbol ate eta saskibaloia saski finkoak jarri izanarekin ez gaude ados. Kirolgune horretako zoria aldatu izana ere —zori leuna jarri zuten galtzada harriaren ordez— akatsa da», esan zuen arkitekto taldeko bozeramaile Manuel Iñiguezek. Talde honen arabera, «plaza denona da. Plaza honek beste auzoetako jendearentzat ere izan behar du».

Nabarmendu zutenek, hasieran plazak herri kirolentzako eremua zuen eta hark ez zuen beste hamaika ekitaldi egitea eragozten, «baina orain kirola-



Manifestua sinatu duten arkitektoak, atzo, Gastronomika Elkartean. Sinatzaileen artean Anton Pagola falta zen. R. PEREZ

ri lotuegia dago». Haien arabera, «plaza publikoa» izan behar du. Ideia horrekin lotuta, Udalak frontoia estaltzeko asmoa duela esan zuten, eta horren kontra agertu ziren.

Arkitektoen ustez, plazak jatorrizko itxura izan dezan, Udalak ez luke diru asko gastatu beharko: «Sarrerako atea kendu egin beharko lukete, bazterkeria kutsu ematen diolako.

Horrez gainera, bolatokia berri ere zabaldu eta futbito eta saskibaloia kantxa dauden tokian aurretik zegoen zoria jarri beharko lukete».

Auzotarren iritzia

Auzoko elkarteak, oro har, ez daude konforme arkitektoek egindako eskaerarekin. Orixe ikastolako zuzendari Arantxa

Goenagak dioenez, «kirolguneei dagokienez, auzoak eta ikastolak berak dituen eskasiak kontuan harturik, ezinbestekoa dugu Trinitate plaza. Ez gara hori kapritxoarengatik eskatzen ari». Aurrerago ere beharko dutela dio Goenagak: «Gure egoitza berrian, Zuloagan, ez baitugu kirolerako tokirik izango».

Alde Zaharra Kirol Elkartea aspaldi ari da eskatzen pilotalekua estaltzea. «Ulegarria da arkitektoek haien ikuspuntua azaltzea, eta argi dago Gantxegik diseinatutako plaza herri kirolen ikurra zela. Guk gureari eutsi nahi diogu, ordea; frontoia estali egin behar da». Duela 20 urte kirol elkarte sortu zutela, eta orduz gerotzik, talde ugari osatu eta txapelketa asko irabazi dituztela dio Fernandezek, «eta hori ere plaza eta auzo osoa zaharberritzea da, nolabait». Parte Zaharrean, kirola egiteko, Trinitate plaza beste tokirik ez dutela dio Alde Zaharra Kirol Elkarteko kideak: «Zuloagan, San Telmorekin lotutako obrak egingo dituzte. Beraz, Trinitate plazari eutsi behar diogu».

Xirimiri Gazte Taldeko Borja

Gazte Olinpiadak

Miren Azkarate ▶ Gaur arratsaldean, Trinitate plazan bertan, Gazte Olinpiadak izango dira. Apirilaren egitaldean, Gazte Topagunea egingo dute Etxarrin-Aranatzen eta topaketa horretan, Gazte Olinpiaden finala izango da. Asteotan kanporaketak egiten ari dira Euskal Herriko leku askotan. Gaur Donostiako sei talde lehiatuko dira. Taldeek joko askotan parte hartuko dute. ◀

Ruizek dioenez, «ulegarria da plazak aspaldiko ukitu xarmanta berreskuratu nahi izatea, baina ezin da museo izan; gune egokia izan behar du auzoarentzat. Kiroldegia auzoko beste leku batean egingo balute, gu prest geundeko diotena onartzeko, baina Udalak dioenez, ez dago tokirik».

Parte Zaharreko Gazte Asanbladako Aitor Olaizolaren ustez, plaza kirolgune gisa indartu behar da. Ez du uste futbolearen eta saskibaloien jokatzeko gunea beste ekitaldi batzuk egiteko oztopo denik: «Kontzertuak antolatu ditugunean, futbol ateak kendu ditugu eta oholtzat jarri dugu, arazorik gabe». Dena dela, arkitekto taldeak mahai gainean jarritako eskaeretak batekin ados daude Gazte Asanbladakoak: sarrerako atea kendu egin behar da. «Gogoeta egin eta beste in-terbide bat bilatu behar dugu plazan iskanbilarik izan ez dadin, baina sarrerako atea ez da in-terbidea».